

PRENTSA-OHARRA

Ofizialki ireki dira, gaur eguerdian, Iruñerriko ikasleek eta udal-zerbitzuek *Naturart* proiektuaren barruan Ziudadelan egin dituzten hamaika lorategiak

Iruñeko alkateak seinaleztaturik geratu den eremura egin du bisita, eta bakarrik gaur ikusi ahalko den mandala osatzeko azken lanak ikusi ditu

Hamaika unibertso diferente, kosmosa ikusteko hamaika modu. Ziudadelako lubanarroetako tapiz berdearen gainean paratu dituzte hamaika lan horiek beste hainbeste ikastetxek (DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketakoak), udal hauetako berdegune eta lorezaintza zerbitzuen laguntzarekin: Burlata, Noain-Elortzibar, Aranguren, Egues, Berriozar, Orkoien Antsoain eta Iruña. Guztira 1.500 m² estaltzen dituzte, eta Hiriartearen arte iraungikor eta garaikidearen kontzeptua lotzen dute Iruñeko Udaleko Parke, Lorategi eta Berdeguneetako Zerbitzuan ingurumen-kontzientziazioaren alde egindako lanarekin.

Gaur goizeko ekitaldian izan dira Iruñeko alkate Joseba Asiron, Udalbatzako kideak, beste Udaletako ordezkariak eta ekimenean laguntza eman duten beste entitate batzuk: Planetarioa, Iruñerriko Mankomunitatea eta Emausko Trapuketariak. Proiektuan parte hartu duten ikasleekin batera egin dute ibilbidea Santa Isabelen errabelinera, eta lorategi bakoitza seinaleztatzen dituzten karteletako azalpenak irakurri dituzte, horrela eginez *land art* obra horien irekiera formala. Gero, lubanarroetara joan dira, eta bertan Iruñeko Parke, Lorategi eta Berdeguneetako Zerbitzuko arduradun Mikel Baztanen azalpen zehatzak jaso dituzte.

Naturart Iruñean egiten den lehenbiziko Hiri Lorezaintzako Jaialdia da, 2017 amaieran abiatu zen eta horren barruan garatu den lan-prozesuaren barruan 12 eta 18 urte bitarteko 487 ikaslek parte hartu dute, bai eta horien tutoreek, irakasleek eta hezkuntza-komunitateek ere, betiere lorezain profesionalen laguntzarekin. Joan den apirilean hasi ziren lorategiak gauzatzeko lanak; material birziklatuak edo birziklagarriak soilik erabili dira, eta nolabait jolastu da landareekin eta belarraren altuera desberdinekin. Lorategiak heldu den ekainaren 3ra arte egongo dira ikusgai. Eskoletako ikasleek egindako lorategiez gain, Udalaren Lorezaintza Zerbitzuak egin dituen zenbait silueta iraungikor ikus daitezke, Unibertsoaren magnitudeak islatzen dituztenak. Horrez gain, ekitaldiari buru emateko, tokiko artista Maía Días Ameavek bakarrik gaur ikusi ahalko den mandala bat egin du.

Erakusketa-hilabetea: proiektuak eta materialak





Lanak modu globalean balioesteko goitik ikusi behar dira, lubanarroen gainean dagoen pasealekutik; izan ere, hortik igarotzen da karteekin seinalaztatu den ibilbidea, non informazio hau jasotzen baita: diseinuaren egilea, gaia, lorategiaren sorkuntzari buruzko kontakizuna, konposizioa eta hori gauzatzean parte hartu duen udala eta ikastetxea. Soldadurako Lantegi Eskolan egin dituzten metalezko 14 euskarritan paratu dira kartelak.

Lorategietan unibertsoari buruzko hainbat adierazpen islatzen dira: ametsen unibertsoa, literaturarena (Printze txikiaren unibertsoa), Unibertsoa espazioaren zabortegi gisa, gizakiak Unibertsoan hartzen duen tokia... Ideia horiek islatzeko erabili diren lehengaiak materia birziklatuak edo birziklagarriak izan dira batez ere: egurra, adreiluak, harriak, oihalak, pneumatikoak, zakuak, euritakoak, botilak, zelulosa, konposta, eta are, aulki-gurpildun bat.

Egin diren lorategi iraungikor asko osatzeko landareak erabili dira, hala sasoiko loreak nola belardian bertan izaten diren lore basatiak. Lorategiak ez daitezen hondatu, eremua hesituta egongo da ekainaren 3ra arte, orduan desegingo baitira.

Lantegi-asteburua

Ekimen experimental honetan interesa eduki eta ikasleen antzera aritu nahi direnentzat, Iruñeko Udalak lorezaintza iraungikorrari buruzko doako lantegi bat antolatu du. Ziudadelan izango da, maiatzaren 19 eta 20an, 11:00etatik 13:00etara, *20 lagun, 21 lorategi* izenburupean.

Juan Aizpún lorezain eta paisajistaren eskutik, lorezaintza iraungikorra bertatik bertara lantzeko aukera izango dute 20 lagunek, gehienez ere. Parte-hartzaileek aukera izango dute minilorategi iraungikor bat eta beste handiago bat sortzeko, gotorlekuaren inguruan. Izena emateko 010 Herritarrendako Arreta Telefonora deitu behar da (948 420 100 telefonora, mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEAK ETA LORATEGIETAKO ZERBITZUAK / PROIEKTUEN IZENAK

- Basoko BHI- Iruñeko Udaleko Lantegi Eskola
Proiektua: *Evolution: from the Big Bang to the black hole*
- Cuatrovientos BHI- Berriozarko Udala
Proiektua: *Manipulatuta*
- Nuestra Señora del Huerto ikastetxea- Burlatako Udala
Proiektua: *Esne Bidea*
- Padre Moret-Irubide BHI- Iruñeko Udaleko Gizarte Enplegua
Proiektua: *Zulo beltza*
- Iturrama BHI - Noain/Elortzibarreko Udala
Proiektua: *Ametsen unibertsoa*
- Jaso Ikastola- Orkoienko Udala



Proiektua: *Iruindarrak Unibertsoan barna*

- Mendillorri BHI- Eguesibarreko Udala

Proiektua: *Printze txikiaren Unibertsoa*

- Iñaki Ochoa de Olza DBHI- Antsoaingo Udala

Proiektua: *Planeten alde iluna*

- San Cernin ikastetxea- Arangurengo Udala

Proiektua: *Ikuskari bat Unibertsoan*

- Vedruna ikastetxea- Iruñeko Udaleko Parke, Lorategi eta Berdeguneetako Zerbitzua

- Proiektua: *Virgon loratzen da*

- Nekazaritza eta Basogintzako Institutua- Iruñeko Udaleko Parke, Lorategi eta Berdeguneetako Zerbitzua

Proiektua: *Nire mundua*

Iruñean, 2018ko maiatzaren 4an

